

<p><b><u>II. Kapitularia. ESLEITZEKO PROZEDURA.</u></b></p>	<p><b><u>Capítulo II. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN.</u></b></p>
<p><b>10.a. <u>LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.</u></b></p> <p>Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkiaren bitartez emango da kontratazio honen berri.</p> <p>Halaber, Internet-en bidez, Irungo Udaleko kontratugilearen perfilean (www.irun.org) argitaratuko da.</p>	<p><b>10ª.- <u>PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN.</u></b></p> <p>El anuncio de la presente contratación será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p> <p>Será asimismo objeto de publicidad a través de Internet, en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Irun (www.irun.org).</p>
<p><b>11.- <u>ESKAERAK ETA LEHENTASUN ORDENA.</u></b></p> <p>1.- Hasiera batean, eskatzaile bakoitzak aparkaleku plaza bat bakarrik eskatu ahal izango du.</p> <p>Halaz ere, mugikortasun murriztuko pertsonen izaera aitortua dutenek plaza egokitua nahiz plaza ez egokitua eskatu ahal izango dute proposamen eredu berean.</p> <p>Bi eratako plazzen esleipendun suertatuz gero, horietako bati berariaz uko egin beharko diote, hiru eguneko epean gehienez ere plazak esleitzeko zozketa egiten denetik aurrera kontatuta. Epe horretan ez badu haietako bati berariaz uko egiten diola jakinarazten, egokitu gabeko plazari uko egiten diola ulertuko da.</p>	<p><b>11ª.- <u>SOLICITUDES Y ORDEN DE PRELACIÓN.</u></b></p> <p>1.- En principio, cada solicitante podrá solicitar una única plaza de aparcamiento.</p> <p>No obstante, quienes tengan reconocida la condición de personas con movilidad reducida, podrán solicitar en el mismo modelo de solicitud tanto una plaza adaptada como una plaza no adaptada.</p> <p>En el supuesto de que resultasen adjudicatarios de plazas de los dos tipos, deberán renunciar expresamente a una de ellas, en el plazo máximo de tres días desde la realización del sorteo de adjudicación de plazas. Si en el citado plazo no comunicase la renuncia expresa a ninguna de ellas, se entenderá que renuncia a la plaza no adaptada.</p>
<p>2.- Honako 3 eskatzaile talde hauek egongo dira:</p> <p>“A Taldea- Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak”.</p> <p>“B Taldea- Irunen bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>“C Taldea- Beste Eskatzaileak”.</p>	<p>2.- Se establecen los siguientes 3 grupos de solicitantes:</p> <p>“Grupo A- Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida”.</p> <p>“Grupo B- Personas físicas residentes en Irun”.</p> <p>“Grupo C- Otros solicitantes”.</p>
<p>3.- Aipaturiko eskatzaile talde horiei</p>	<p>3.- En relación con los citados grupos de</p>

<p>dagokienean, eta “A Taldea- Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak” izan ezik, honako lehentasun ordena hau ezarri da:</p> <p>1.-“B Taldea- Irunen bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>2.-“C Taldea- Beste Eskatzaileak”.</p> <p>Horrenbestez, eskainitako plaza baino eskaera gehiago baldin badago, “B Taldeko” eskatzaileek esleipendun izateko lehentasuna izango dute “C Taldekoen” aurretik.</p>	<p>solicitantes, y a excepción del “Grupo A- Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida”, se establece el siguiente orden de prelación:</p> <p>1.-“Grupo B- Personas físicas residentes en Irun”.</p> <p>2.-“Grupo C- Otros solicitantes”.</p> <p>De forma que, en el supuesto de que existan más solicitudes que plazas ofertadas, los solicitantes del “Grupo B” tendrán preferencia para ser adjudicatarios sobre los solicitantes del “Grupo C”.</p>
<p>4.- Era berean, eta <b>II. Eranskinean</b> jasotako eragin eremuan bizi diren pertsonak aparkaleku plazak eskuratzeko aukera izan dezaten, zehazten da, “A- Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak” eta “B- Irunen bizi diren pertsona fisikoak” taldeei dagozkien eskaera taldeetan, eta eskainitako plazak baino eskaera gehiago baldin badaude, talde bakoitzean lehentasuna izango dutela aparkalekuaren eragin eremuan bizi direnek Irungo gainerakoan bizi direnen aurretik</p>	<p>4.- Asimismo y al objeto de favorecer el acceso a las plazas de aparcamiento de las personas residentes en la zona de influencia que se recoge en el <b>Anexo II</b>, se establece que en los grupos de solicitudes correspondientes a los grupos “A-Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida”, y, “B-Personas físicas residentes en Irun”, y para el supuesto de que existan más solicitudes que plazas ofertadas, tendrán prioridad en cada uno de los grupos, los residentes en la zona de influencia del aparcamiento respecto a los residentes en el resto de Irun.</p>
<p>5.- Azkenik, “C taldea- beste eskatzaile batzuk” taldeari dagozkion eskabide multzoaren inguruan, eta aurkezten diren eskaerak eskaintzen diren plazak baino gehiago badira, lehentasuna izango dute jarduera ekonomikoen titularrek, baita lan-jarduera edo lantokia aparkalekuaren eragin-eremuaren barruan kokatuta duten besteren konturako langileak ere.</p>	<p>5.- Por último, y en relación con el grupo de solicitudes correspondientes al “Grupo C-Otros solicitantes”, y para el supuesto de que existan más solicitudes que plazas ofertadas, se establece que tendrán prioridad los titulares de actividades económicas, y, los trabajadores por cuenta ajena cuya actividad o centro de trabajo, radique dentro de la zona de influencia del aparcamiento.</p>
<p><b>12.- ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.</b></p> <p>Kontzesio erregimenean emango diren aparkaleku plaza hauetakoren bat eskuratzeko eskubidea izango dute eskaera egiten duten eta</p>	<p><b>12ª.- REQUISITOS DE LOS SOLICITANTES.</b></p> <p>Tendrán derecho a optar a una de éstas plazas de aparcamiento en régimen de concesión, todas aquellas personas que lo soliciten y</p>

<p>ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek, bakoitza dagoen kasuaren arabera:</p> <p><b>A) Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak.</b></p> <p>Ezintasunak dituzten pertsonentzako egokituriko 7 aparkaleku plazetako bat eskuratzeko eskubidea izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:</p> <p>1.- Adin nagusiko pertsona fisikoa izatea, turismo ibilgailu edo antzekoaren titularra, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen inguruko Zergaren ondorioetarako. Salbuespen gisa, mugikortasun murriztuko pertsonen izaera duten adin txikikoen izenean eta ordezkari gisa aurkeztutako eskaerak onartu ahal izango ditu Udalak, adin txikikoarekin bizitzeaz gainera, pertsona hori eramateaz arduratzen badira eta zehaztutako gainerako baldintzak betetzen badituzte. Ibilgailuaren titularitatea ofizios egiaztatuko du Irungo Udalak.</p> <p>2.- Mugikortasun murriztuko pertsonaren izaera aitortua izatea. Ondorio horietarako, honako hauek izango dira mugikortasun murriztua duten pertsonak:</p> <p>a') 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako elbarritasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztua dutenak; horrelakotzat hartuko dira minusbalioetasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskin gisa ageri den baremoan A, B edo C letretan deskribaturiko egoeraren batean daudenak, edo aipaturiko baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak.</p> <p>b') 100eko 65eko edo hortik goragoko elbarritasun maila duten pertsonak.</p>	<p>cumplan los siguientes requisitos, en función del supuesto en que se encuentren:</p> <p><b>A) Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida.</b></p> <p>Tendrán derecho a optar a una de las 7 plazas de aparcamiento adaptadas para personas con discapacidad, quienes cumplan los siguientes requisitos:</p> <p>1.- Ser persona física mayor de edad titular de un vehículo turismo o equivalente a efectos del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica. Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá admitir solicitudes presentadas en nombre y representación de menores que tengan la condición de personas de movilidad reducida, por parte de quienes además de convivir con el menor, sean los encargados de su traslado, y cumplan el resto de los requisitos fijados. La titularidad del vehículo será comprobada de oficio por el Ayuntamiento de Irun.</p> <p>2.- Tener reconocida la condición de persona de movilidad reducida. A estos efectos, se considerarán personas con movilidad reducida las siguientes:</p> <p>a') Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía, o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.</p> <p>b) Aquéllas personas con un grado de</p>
---	---

<p>3.- Gidatzeko baimena indarrean edukitzea.</p> <p>Salbuespen gisa, mugikortasun murriztua duten, ibilgailuen jabe diren eta gidatzeko baimenik ez duten pertsonen eskaerak onartu ahal izango ditu Udalak.</p> <p>4.- Egoitza Irungo udal barrutian izatea modu iraunkorrean. Egoitza Irunen duela justifikatzeko Biztanleen Udal Erroldan izena emana izan behar du Plegu hau onartzen den egunean, eta alderdi hori ofizioz egiaztatuko du Irungo Udalak.</p> <p>5.- Irungo Udalarekiko betebeharren ordainketan egunean egotea, bai zerga ordainketetan bai beste edozeinetan. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da, eta zorrak kitatzeko dituen pertsonak ezin izango du kontzesiodun izaera lortu.</p> <p>Eskainitakoak baino plaza egokituen eskaera gehiago baldin badaude, aparkalekuaren eragin eremuan dauden biztanleek lehentasuna izango dute Irungo gainerakoan bizi direnen aurretik.</p>	<p>minusvalía igual o superior al 65 por 100.</p> <p>3.- Disponer de permiso de conducción en vigor.</p> <p>Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá admitir solicitudes de personas de movilidad reducida, propietarias de vehículos, que no posean el permiso de conducir.</p> <p>4.- Tener la residencia fijada con carácter permanente en el término municipal de Irun. Para justificar la residencia se considerará la inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes a la fecha de aprobación de este Pliego, extremo que será comprobado de oficio por el Ayuntamiento de Irun.</p> <p>5.- Estar al corriente en el pago de las obligaciones con el Ayuntamiento de Irun, tanto de carácter tributario como de cualquier otra índole. Este extremo será comprobado de oficio, no pudiendo lograr la condición de concesionario una persona con deudas pendientes.</p> <p>En el supuesto de que exista más solicitudes de plazas adaptadas que ofertadas, tendrán prioridad los residentes en la zona de influencia del aparcamiento respecto de los residentes en el resto de Irun.</p>
<p><b>B) Irunen bizi diren pertsona fisikoak.</b></p> <p>207 aparkaleku plazetako bat eskuratzeko eskubidea izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:</p> <p>1.- Adin nagusiko pertsona fisikoa izatea, turismo ibilgailu edo antzekoaren titularra, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen inguruko Zergaren ondorioetarako.</p> <p>Pertsona fisiko batek bere enpresak utzitako turismo ibilgailua badu, bai enpresa horren jabetzakoa bai finantza errentamendu</p>	<p><b>B) Personas físicas residentes en Irun.</b></p> <p>Tendrán derecho a optar a una de las 207 plazas de aparcamiento, quienes cumplan los siguientes requisitos:</p> <p>1.- Ser persona física mayor de edad titular de un vehículo turismo o equivalente a efectos del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.</p> <p>En los casos en que una persona física disponga de un vehículo turismo cedido por su empresa, bien sea propiedad de ésta, bien lo haya</p>

<p>kontratuaren bidez (renting edo leasing) eskuratua, gorabehera hori egiaztatu beharko du bere garaian.</p> <p>Ibilgailuaren titularitatea ofizioz egiaztatuko du Irungo Udalak.</p> <p>2.- Gidatzeko baimena indarrean edukitzea.</p> <p>Salbuespen gisa, ibilgailuen jabe diren eta gidatzeko baimenik ez duten pertsonen eskaerak onartu ahal izango ditu Udalak.</p> <p>3.- Egoitza Irungo udal barrutian izatea modu iraunkorrean. Egoitza Irunen duela justifikatzeko Biztanleen Udal Erroldan izena emana izan behar du Plegu hau onartzen den egunean, eta alderdi hori ofizioz egiaztatuko du Irungo Udalak.</p> <p>4.- Irungo Udalarekiko betebeharren ordainketan egunean egotea, bai zerga ordainketetan bai beste edozeinetan. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da, eta zorrak kitatzeko dituen pertsonak ezin izango du kontzesiodun izaera lortu.</p> <p>Eskainitako plazak baino eskaera gehiago baldin badaude, aparkalekuaren eragin eremuan dauden biztanleek lehentasuna izango dute Irungo gainerakoan bizi direnen aurretik.</p>	<p>adquirido mediante la suscripción de un contrato de arrendamiento financiero (renting o leasing), deberá acreditar en su momento esta circunstancia.</p> <p>La titularidad del vehículo será comprobada de oficio por el Ayuntamiento de Irun.</p> <p>2.- Disponer de permiso de conducción en vigor.</p> <p>Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá admitir solicitudes de personas propietarias de vehículos, que no posean el permiso de conducir.</p> <p>3.- Tener la residencia fijada con carácter permanente en el término municipal de Irun. Para justificar la residencia se considerará la inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes a la fecha de aprobación de este Pliego, extremo que será comprobado de oficio por el Ayuntamiento de Irun.</p> <p>4.- Estar al corriente en el pago de las obligaciones con el Ayuntamiento de Irun, tanto de carácter tributario como de cualquier otra índole. Este extremo será comprobado de oficio, no pudiendo lograr la condición de concesionario una persona con deudas pendientes.</p> <p>En el supuesto de que exista más solicitudes que plazas ofertadas, tendrán prioridad los residentes en la zona de influencia del aparcamiento respecto de los residentes en el resto de Irun.</p>
<p><b>C) Beste eskatzaileak.</b></p> <p>207 aparkaleku plazetako bat eskuratzeko eskubidea izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:</p> <p>1.- Turismo ibilgailu edo antzekoaren titularra izatea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen inguruko Zergaren ondorioetarako.</p>	<p><b>C) Otros solicitantes.</b></p> <p>C.1.- Tendrán derecho a optar a una de las 207 plazas de aparcamiento, quienes cumplan los siguientes requisitos:</p> <p>1.- Ser titular de un vehículo turismo o equivalente a efectos del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.</p>

<p>Pertsona fisiko batek bere enpresak utzitako turismo ibilgailua badu, bai enpresa horren jabetzakoa bai finantza errentamendu kontratuaren bidez (renting edo leasing) eskuratua, gorabehera hori egiaztatu beharko du bere garaian.</p> <p>Ibilgailuaren titularitatea ofizioz egiaztatuko du Irungo Udalak.</p> <p>2.- Hala behar badu, Irungo Udalarekiko betebeharren ordainketan egunean egotea, bai zerga ordainketetan bai beste edozeinetan. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da, eta zorrak kitatzeko dituen pertsonak ezin izango du kontzesiodun izaera lortu.</p> <p>3.- Hala dagokionean, merkataritza, lan edo industria jarduera baten titularra izatea, edo besteren konturako langilea izatea eta jarduera edo lantokia aparkalekuaren eragin-eremuaren barruan kokatua egotea. Azken betekizun hau bakarrik kontuan hartuko da talde Plegu honen 11.5 klausularen honi buruz ezarritako lehentasunarekin betetzeko.</p>	<p>En los casos en que una persona física disponga de un vehículo turismo cedido por su empresa, bien sea propiedad de ésta, bien lo haya adquirido mediante la suscripción de un contrato de arrendamiento financiero (renting o leasing), deberá acreditar en su momento esta circunstancia.</p> <p>La titularidad del vehículo será comprobada de oficio por el Ayuntamiento de Irun.</p> <p>2.- Estar al corriente, en su caso, en el pago de las obligaciones con el Ayuntamiento de Irun, tanto de carácter tributario como de cualquier otra índole. Este extremo será comprobado de oficio, no pudiendo lograr la condición de concesionario una persona con deudas pendientes.</p> <p>3.- Ser, en su caso, titular de una actividad comercial, profesional o industrial, o, ser trabajador por cuenta ajena cuya actividad o centro de trabajo, esté ubicado dentro de la zona de influencia del aparcamiento. Éste último requisito únicamente se tendrá en cuenta al objeto dar cumplimiento a la prelación establecida en relación con este grupo por la cláusula 11.5 de este Pliego.</p>
<p><b>13.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.</b></p> <p>Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Irungo Udalaren <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a> web orriko kontratazio atarian argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta. Azken eguna laneguna ez bada, hurrengo lanegunera arte luzatzen dela ulertuko da.</p> <p>Epe horretan aparkaleku plazan, haien prezioaren, egoeraren, esleitzeko lehentasuna duten eremuen eta abarren inguruan ahalik eta informazio handiena emango zaie interesatuei. Informazio hori IRUNVI S.A.U-Irungo</p>	<p><b>13ª.- PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.</b></p> <p>El plazo de presentación de solicitudes será de 30 días naturales, contados a partir del día siguiente al de publicación del anuncio de licitación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el portal de contratación de la página web del Ayuntamiento de Irun <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>. Si el último día fuese inhábil se entenderá prorrogado hasta el siguiente día hábil.</p> <p>Durante el citado plazo se proporcionará a los interesados la mayor información posible acerca de las plazas de aparcamiento, su precio, situación, zonas de prioridad de adjudicación, etc .... Dicha información les será facilitada en</p>

<p>Etxebizitzaren Elkarte Publikoaren bulegoetan emango zaizue (Eliza karrika 6, behe), baita Udalak zehazten duen beste bulego edo udal zerbitzuan ere.</p>	<p>las oficinas de la “Sociedad Pública de Vivienda de Irun-IRUNVI S.A.U.” sitas en c/Iglesia nº6-Bajo, y, en cualquier otra oficina o servicio municipal que el Ayuntamiento determine.</p>
<p><b>14.- ESKAERA AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA.</b></p> <p>Interesatuak honako era hauetan aurkeztu ahal izango dituzte beren eskaintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Leihatilan</b>, Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuan -HAZ- (Juan de la Cruz kalea 2), 30 egun naturaleko epean, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.</li> <li>- <b>Posta ziurtatuaren bidez</b>, aurreko paragrafoan zehaztutako epean, eta honako helbide honetan: <b>“IRUNGO UDALA, San Juan Harria plaza 1, 20304 IRUN. Erreferentzia: 5.3.11 SAN JUAN-ETXEANDIA ESPARRUAN ZORUPEAN DAGOEN APARKALEKUAN 214 APARKALEKU PLAZAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA”</b>, kasu honetan bidaltzaileak eskaintza horiek Posta bulegoan jarri dituen eguna justifikatu behar du eta faxez (943.505.657) edo posta elektronikoen bidez (sac.010@irun.org) eskaintza bidali duela jakinarazi behar dio kontratazio organoari egun berean. Bi baldintza horiek ez badira betetzen, eskaera ez da onartuko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Halaz ere, zehaztutako egun horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira eskaera jaso gabe, eskaera hori ez da inola ere onartuko.</li> </ul> <p>Eskaerak behar bezala aztertu eta prestatu ahal</p>	<p><b>14ª.- LUGAR Y FORMA DE PRESENTACIÓN DE LA SOLICITUD.</b></p> <p>La presentación de solicitudes por parte de los interesados podrá realizarse:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>En ventanilla</b>, en el Servicio de Atención Ciudadana -SAC- (C/ Juan de la Cruz, nº 2) en el plazo de <b>30 días naturales</b> a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio de la licitación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en días laborables y durante el horario de apertura al público.</li> <li>- <b>Por correo certificado</b>, en el plazo establecido en el párrafo anterior, y en la siguiente dirección: <b>“AYUNTAMIENTO DE IRUN, Plaza de San Juan Harria 1, 20.304 IRUN. Referencia: CONCESIÓN ADMINISTRATIVA DE 214 PLAZAS DE APARCAMIENTO EN EL ESTACIONAMIENTO SITO EN EL SUBSUELO DEL ÁMBITO 5.3.11 SAN JUAN-ETXEANDIA”</b>, debiendo el remitente justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la solicitud mediante fax (943.505.657) o correo electrónico (sac.010@irun.org) en el mismo día. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la solicitud si es recibida con posterioridad a la fecha de terminación del plazo para presentación de solicitudes. Transcurridos, no obstante, diez días naturales siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la solicitud, ésta no será admitida en ningún caso.</li> </ul> <p>A fin de estudiar y preparar debidamente las</p>

<p>izateko, Baldintza Pleguak interesatuen eskura egongo dira Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuan. (<a href="mailto:sac.010@irun.org">sac.010@irun.org</a> / <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>).</p> <p>Era berean, espediente administratiboa IRUNVI S.A.U. Irungo Etxebizitzaren Elkarte Publikoaren" bulegoetan azertu ahalko da (Eliza karrikaren 6.zenbakian, behean) bulego orduetan, deialdia publikoa egiten denetik lizitazioa egiten den datara arte.</p>	<p>solicitudes, los Pliegos de Condiciones estarán a disposición de los interesados en el Servicio de Atención al Ciudadano. (<a href="mailto:sac.010@irun.org">sac.010@irun.org</a> / <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>).</p> <p>Asimismo, el expediente administrativo podrá examinarse en oficinas de la “Sociedad Pública de Vivienda de Irun-IRUNVI S.A.U.” sitas en c/Iglesia nº6-Bajo, durante las horas de oficina y desde la publicación de la convocatoria hasta la fecha de la licitación.</p>
<p><b>15.- ESKAERAREKIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.</b></p> <p>1.- Interesa duten pertsonak beharreko eskaera aurkeztu behar dute, eta honako dokumentazio hauek harekin batera:</p> <p>a) Eskaera-orri normalizatua, <b>III. Eranskin</b> gisa doan ereduaren arabera. Eskatzailearen datu pertsonalak, haren helbidea, eskatzen duen aparkalekuan sartu behar duen ibilgailuaren datuak eta zein eskatzaile mota den adieraziko da eskaera horretan. Eskaera-orri honetan posta elektronikoaren helbidea ere adieraziko da, izanez gero, jakinarazpenak egin ahal izateko.</p>	<p><b>15ª.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR CON LA SOLICITUD.</b></p> <p>1.- Las personas interesadas presentarán una solicitud a la que acompañarán la siguiente documentación:</p> <p>b) Instancia normalizada según modelo que figura como <b>Anexo III</b>, en la que constarán los datos personales del solicitante, su domicilio y datos del vehículo automóvil para el que solicita estacionamiento y concreción del tipo de solicitante de que se trate. En dicha instancia, si se dispone, se incluirá la dirección de correo electrónico a efectos de poder realizar notificaciones.</p>
<p>b) N.A.N.aren fotokopia konpultsatua, edo, hala badagokio, pasaporte edo egoiliar txartela, edo pertsona juridikoen kasuan, Elkartearen eraketaren Eskrituraren kopia konpultsatua eta, hala beha badu, pertsona fisiko edo juridiko baten izenean eta ordezkari gisa eskaera aurkezten duen pertsona fisikoaren aldeko ahalordea edo baimena.</p>	<p>b) Fotocopia compulsada del D.N.I., o, en su caso, pasaporte o tarjeta de residencia, o, en el caso de personas jurídicas, copia compulsada de la Escritura de constitución de la Sociedad y, en su caso, poder o autorización a favor de la persona física que presente la solicitud en nombre y representación de una persona física o jurídica.</p>
<p>c) Indarrean dagoen gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.</p>	<p>c) Fotocopia compulsada del permiso de conducción en vigor.</p>
<p>d) Hala behar badu, elbarritasuna aitortzen</p>	<p>d) En su caso, fotocopia compulsada del</p>



duen Ziurtagiri eguneratuaren fotokopia konpultsatua.	Certificado de reconocimiento de minusvalía actualizado.
e) Hala behar badu, eskatzailearen jarduera ekonomikoa aparkalekuaren eragin-eremuaren kokatua dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, edo, hala behar izanez gero lantokiarena, besteren konturako langilea bada.	e) En su caso, documentación acreditativa de la ubicación dentro de la zona de influencia del aparcamiento de la actividad económica titularidad del solicitante, o, en su caso, del centro de trabajo, en caso de tratarse de trabajador por cuenta ajena.
f) Hala behar badu, enpresak eginiko dokumentua, pertsona eskatzailea ibilgailuaren ohiko erabiltzailea eta gidaria dela egiaztatzen duena.	f) En su caso, documento extendido por la empresa acreditativo de que la persona solicitante es la persona usuaria conductora habitual del vehículo.
g) Udalaren Diruzaintzaren frogagiria, 300€ko diru-kopurua gordailatu duela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo aipatutako kopuru hori Irungo Udalaren kontu hauetakoren batean gordailatu duela egiaztatzen duen ziurtagiria:	g) Resguardo de Tesorería Municipal justificante de haber depositado la cantidad de 300€ o, justificante de haber depositado la citada cantidad en cualquiera de las siguientes cuentas del Ayuntamiento de Irun:
<p>Gipuzkoa Donostia Kutxa 2101 0045 93 0000089532  Caja Laboral: 3035 0059 82 0590900001  BBVA: 0182 3160 14 0000010520  Banco la Vasconia: 0095 4623 13 0660000369  Banco Guipuzcoano: 0042 0029 18 0100108853  Banco Santander: 0049 4977 32 2610069367</p>	
behin-behineko berme gisa, eskaeraren finkotasuna ziurtatzeko kontzeptuan.  Esleipendun suertatzen ez diren pertsonen zenbateko hori itzuliko zaie gehienez ere 30 eguneko epean, esleipen erabakia hartzen den egunetik aurrera kontatuta. Aparkalekuko plazen esleipendunei dagokionez, aipatutako kopurua itzuli egingo da gehienez ere hilabeteko epean, kontzesio administratiboa formalizatzeko kontratu administratiboa sinatzen denetik kontatuta.	como garantía provisional en concepto de garantía por la firmeza de la solicitud.  Esta cantidad será devuelta a las personas que no resulten adjudicatarias en el plazo máximo de 30 días naturales a contar desde el acuerdo de adjudicación. En relación con los adjudicatarios de plazas de aparcamiento, la citada cantidad será devuelta en el plazo máximo de un mes a contar desde la firma del contrato administrativo de formalización de la concesión administrativa.
<b>16.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA</b>	<b>16ª.- MESA DE CONTRATACIÓN Y</b>

<p><b>ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK.</b></p> <p><b>16.1. Kontratazio mahaia.</b></p> <p>Udalbatzak 2009ko uztailaren 27ko osoko bilkuran onarturiko Kontratazio Prozedurak arautzen dituen Udal Araudiak aurreikusitakoaren arabera osatuko da Kontratazio Mahaia. 2009ko abenduaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Mahaiaren izenezko osaera.</p> <p>Kontratazio Mahaiak eskaerak irekiko ditu Irungo Udalaren bulegoetan (San Juan Harria Plaza, 1) eskerak aurkezteko epea amaitzen den astearen hurrengo asteko ostegunean 10:00etan. Bulegoen ordutegiaren arabera egun hori laneguna ez bada, hurrengo lanegunean irekiko dira.</p> <p>Interesatuak beharreko denbora eta moduan aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du Kontratazio Mahaiak. Mahaiak ikusten badu eskaera batzuk ez daudela behar bezala osatuta edo horiekin batera ez dela eskatutako dokumentazioa aurkeztu, gehienez ere hamar laneguneko epean behar dena osatzeko edo derrigorrezko dokumentuak aurkezteko eskatuko zaie interesatuei, eta jakinaraziko zaie, horrela ez badute egiten, eskaera bertan behera gelditu dela ulertuko dela.</p>	<p><b>LISTAS PROVISIONALES DE ADMITIDOS Y EXCLUIDOS.</b></p> <p><b>16.1. Mesa de contratación.</b></p> <p>La Mesa de Contratación estará constituida según lo previsto en la Reglamento Municipal regulador de los Procedimientos de Contratación, aprobado en sesión plenaria de 27 de julio de 2.009. La composición nominal de la Mesa fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 17 de diciembre de 2009.</p> <p>La Mesa de Contratación, procederá a la apertura de las solicitudes en las oficinas del Ayuntamiento de Irun (Plaza San Juan Harria, 1) a las 10:00 horas del jueves de la semana siguiente a aquélla en que finalice el plazo de presentación de solicitudes. En caso de que ese día resulte inhábil según el calendario de oficinas, la apertura se pospondrá al siguiente día hábil.</p> <p>La Mesa de contratación procederá a calificar la documentación presentada en tiempo y forma por los interesados. Si la Mesa observare la existencia de solicitudes que no estuvieren debidamente cumplimentadas o con las que no se adjuntase la documentación exigida, se requerirá a los interesados para que, en un plazo máximo de diez días hábiles, subsanen la falta o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de su solicitud.</p>
<p><b>16.2.- Onartutako en eta kanpoan utzitako en behin-behineko zerrendak.</b></p> <p>Onartutako en eta kanpoan utzitako en behin-behineko zerrendak jende aurrean jarriko dira 10 lanegun ez Irungo Udalaren Ediktuen Taulan eta <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a> web orrian.</p>	<p><b>16.2.- Listas provisionales de admitidos y de excluidos.</b></p> <p>Las listas provisionales de admitidos y excluidos se expondrán al público durante un plazo de 10 días hábiles en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento de Irun y en la página web <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>.</p>

<p>c) Onartutakoen behin-behineko zerrendak egiterakoan, honako talde eta azpitalde hauen arabera bereiziko dira eskaerak:</p> <p>A Taldea- 1. Azpitaldea. Aparkalekuaren eragin eremuan bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak.</p> <p>A Taldea- 2. Azpitaldea. Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak”.</p> <p>B Taldea- 1. Azpitaldea. Aparkalekuaren eragin eremuan bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>B Taldea- 2. Azpitaldea. Irunen bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>C Taldea- 1. Azpitaldea. Beste eskatzaileak – Jarduera ekonomikoen titularrak, edo, lan-jarduera edo lantokia aparkalekuaren eragin-eremuaren barruan kokatua duten besteren konturako langileak.</p> <p>C Taldea- 2. Azpitaldea. Beste eskatzaileak.</p>	<p>d) Las listas provisionales de admitidos, se confeccionarán diferenciando las solicitudes conforme los siguientes grupos y subgrupos:</p> <p>Grupo A- Subgrupo 1. Personas físicas residentes en el área de influencia del aparcamiento con movilidad reducida</p> <p>Grupo A- Subgrupo 2. Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida.</p> <p>Grupo B- Subgrupo 1. Personas físicas residentes en el área de influencia del aparcamiento.</p> <p>Grupo B- Subgrupo 2. Personas físicas residentes en Irun.</p> <p>Grupo C- Subgrupo 1. Otros solicitantes – titulares de actividades económicas, o, trabajadores por cuenta ajena cuya actividad o centro de trabajo, esté ubicado dentro de la zona de influencia del aparcamiento.</p> <p>Grupo C- Subgrupo 2. Otros solicitantes.</p>
<p><b>16.3. Behin-behineko zerrenden inguruko erreklamazioak.</b></p> <p>Hala behar badu, behin-behineko zerrenden aurka egiten diren erreklamazioak Kontratazio Mahaiak erabakiko ditu eta interesatuei jakinaraziko zaie.</p> <p>Beharreko denboran eta moduan ez bada erreklamaziorik aurkezten betiko bilakatuko dira behin-behineko zerrendak.</p>	<p><b>16.3. Reclamaciones sobre las listas provisionales.</b></p> <p>Las reclamaciones que, en su caso, se formulen contra las listas provisionales serán resueltas por la Mesa de contratación y notificadas a los interesados.</p> <p>Si no se formulan reclamaciones en tiempo y forma, las listas provisionales se convertirán en definitivas.</p>
<p><b>17.- ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BETIKO ZERRENDAK.</b></p> <p>Jende aurrean egoteko 10 laneguneko epea amaitu ondoren eta egon daitezkeen alegazioak konpondu ondoren, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen betiko zerrendak onartuko ditu Udalaren Kontratazio Mahaiak. Eskatzaile guztiei emango zaie onarpen erabakiaren berri. Berri hortan zozketa egingo den eguna eta orduaren berri ere emango zaie.</p>	<p><b>17ª.- LISTAS DEFINITIVAS DE ADMITIDOS Y EXCLUIDOS.</b></p> <p>Finalizado el plazo de 10 días hábiles para exposición y una vez resueltas las posibles alegaciones se aprobarán por la Mesa de Contratación del Ayuntamiento las listas definitivas de admitidos y excluidos. El acuerdo de aprobación se notificará a todos los solicitantes, señalándose en la citada notificación la fecha y hora de realización del</p>

	sorteo.
<p><b>18.- PLAZAK ESLEITZEKO ZOZKETA.</b></p> <p>1.- Plazak esleitzeko zozketa egingo da ekitaldi publikoan. Irungo Udalaren Iragarki Taulan eta <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a> orrian kontratatzailearen profilean iragarriko dira zozketa horren lekua, eguna eta ordua.</p> <p>Hala behar badu, ondoko 6 zerrenda hauek egingo dira, zozketa egin aurretik, zerrenda bakoitzeko eskatzaileei zenbaki korrelatiboa eman ondoren 1etik hasita. Emaniko zenbaki horiek izango dira dagokion zozketarako zenbakiak. Zozketa egiten den lekua sarreran jarriko diren zerrendetan egiaztatu ahal izango dira zenbaki horiek.</p> <p>1. <u>Zerrenda-</u> A.1 Taldea – Aparkalekuaren eragin eremuan bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak.</p> <p>2. <u>Zerrenda-</u> A.2 Taldea – Irunen bizi diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak”.</p> <p>3. <u>Zerrenda-</u> B1 Taldea – Aparkalekuaren eragin eremuan bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>4. <u>Zerrenda-</u> B-2 Taldea – Irunen bizi diren pertsona fisikoak”.</p> <p>5. <u>Zerrenda-</u> C-1 Taldea- Gainerako eskatzaileak – Jarduera ekonomikoen titularrak edo, lan-jarduera edo lantokia aparkalekuaren eragin-eremuaren barruan kokatua duten besteren konturako langileak.</p> <p>6. <u>Zerrenda-</u> C-2 Taldea- Gainerako eskatzaileak</p>	<p><b>18ª.- SORTEO DE ADJUDICACIÓN DE PLAZAS.</b></p> <p>1.- Para la adjudicación de las plazas se realizará un sorteo en acto público, cuyo lugar, fecha y hora se anunciará en el Tablón de anuncios y en el perfil del contratante de la página web Ayuntamiento de Irun <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>.</p> <p>Con anterioridad al sorteo, se formarán las siguientes 6 listas asignando a las solicitantes de cada lista un número correlativo comenzando por el 1, que será el número asignado para el sorteo correspondiente. Estos números podrán comprobarse en los listados que se pondrán a la entrada del lugar en el que se celebre el sorteo.</p> <p><u>Lista nº 1-</u> Grupo A.1 - Personas físicas residentes en el área de influencia del aparcamiento con movilidad reducida.</p> <p><u>Lista nº 2-</u> Grupo A.2 - Personas físicas residentes en Irun con movilidad reducida.</p> <p><u>Lista nº 3-</u> Grupo B1 - Personas físicas residentes en el área de influencia del aparcamiento”.</p> <p><u>Lista nº 4-</u> Grupo B-2 - Personas físicas residentes en Irun.</p> <p><u>Lista nº 5-</u> Grupo C-1 – Otros solicitantes - titulares de actividades económicas, o, trabajadores por cuenta ajena cuya actividad o centro de trabajo, esté ubicado dentro de la zona de influencia del aparcamiento.</p> <p><u>Lista nº 6-</u> Grupo C-2 - Otros solicitantes.</p>
<p><u>2.- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako egokituriko plazen zozketa.</u></p> <p>Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako</p>	<p><u>2.- Sorteo de las plazas adaptadas para personas con movilidad reducida.</u></p> <p>En primer lugar se efectuará el sorteo de las</p>

<p>egokituriko plazen zozketa egingo da lehenengo.</p> <p>2.1.- 1. eta 2. Zerrendetako (A.1 eta A.2 Taldeak) eskatzaileen guztizko kopurua mugikortasun murriztua duten pertsonentzako gordetako plaza kopurua baino txikiagoa baldin bada, zoketa bakarra egingo da honako era honetan:</p> <p>Eskatzaile bakoitzari zozketaren aurretik zenbaki korrelatibo bat emango zaio letik hasita. Eskatzaileen zenbakiak sartuko dira ontzi batean, eta bestean, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako plazen zenbakiak. Lehen ontzitik bola bat aterako da, eta beste bola bat mugikortasun murriztua duten pertsonentzako plazen zenbakiak dituenetik. Era horretan zehaztuko dira esleipenduna eta esleituriko plaza.</p>	<p>plazas adaptadas para personas con movilidad reducida.</p> <p>2.1.- Si el número total de solicitantes de las Listas 1 y 2 (Grupos A.1 y A.2) es inferior al número de plazas destinadas a personas con movilidad reducida, se efectuará un único sorteo de la siguiente forma:</p> <p>En un bombo, se introducirán los números correspondientes a los solicitantes, y en el otro, los números de las plazas destinadas a personas con movilidad reducida. Se sacará una bola del bombo y, otra bola del que contiene los números de las plazas destinadas a personas con movilidad reducida. De esta forma queda determinado el adjudicatario y la plaza adjudicada.</p>
<p>2.2.- 1. eta 2. Zerrendetako (A.1 eta A.2 Taldeak) eskatzaileen guztizko kopurua mugikortasun murriztua duten pertsonentzako gordetako plaza kopurua baino handiagoa baldin bada, lehen zozketa egingo da aurreko atalean jasotako sistema beraren arabera, A.1. Taldeko eskatzaileekin.</p> <p>Plaza libreak geratzen badira, bigarren zozketa egingo da, sistema beraren arabera A.2. Taldeko eskatzaileekin.</p>	<p>2.2.- Si el número total de solicitantes de las Listas 1 y 2 (Grupos A.1 y A.2) es superior al número de plazas destinadas a personas con movilidad reducida, se efectuará un primer sorteo, por el mismo sistema recogido en el apartado anterior, con los solicitantes del Grupo A.1.</p> <p>Si quedaran plazas libres, se efectuará un segundo sorteo, por el mismo sistema con los solicitantes del Grupo A.2.</p>
<p>2.3.- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako plazak bukatzen direnean, eta horrelakorik behar bada, eskaeren zozketarekin jarraituko da itxaron-zerrendak osatu ahal izateko, kontuan izanik zozketa honetan 1. zerrendakoak zozketatuko direla lehenengo eta 2. zerrendakoak ondoren.</p> <p>Kasu honetan zenbaki bakarra aterako da ontzitik, eskatzaileei dagozkien zenbakiak dauden lekutik. Itxaron-zerrendako lehenengoa izango da zenbaki hori, eta hurrengoak haren jarraian doazenak goranzko ordenan. (Esate baterako: 20 zenbakia ateratzen bada, honakoa</p>	<p>2.3.- Agotadas las plazas destinadas a personas con movilidad reducida, y en caso de ser necesario, se seguirá con el sorteo de solicitudes a fin de formar las listas de espera, teniendo en cuenta que en este sorteo se sortearán primero las de la Lista nº 1 y, a continuación las de la lista nº 2.</p> <p>En este caso se extraerá un único número del bombo, donde se encuentran los números correspondientes a los solicitantes. Ese número será el primero de la lista de espera, siendo los siguientes sus correlativos en orden ascendente. (P. ejemplo: si sale el número 20, el orden será</p>

<p>izango da ordena: 20-21-22 etab....</p>	<p>el siguiente: 20-21-22 etc....</p>
<p><u>3.- Gainerako plazen zozketa.</u></p> <p>Bigarren, aparkalekuko 3. solairuko gainerako 207 plazen zozketa egingo da.</p> <p>3.1.- 3., 4. eta 5. Zerrendetan (B.1-B.2 eta C Taldeak) dauden eskatzaileen guztizko kopurua zozketatu beharreko plazen kopurua baino txikiagoa bada, zozketa bakarra egingo da honako era honetan:</p> <p>Eskatzaile bakoitzari zozketaren aurretik zenbaki korrelatibo bat emango zaio letik hasita. Eskatzaileen zenbakiak sartuko dira ontzi batean, eta bestean, plazen zenbakiak. Lehen ontzitik bola bat aterako da, eta beste bola bat plazen zenbakiak dituenetik. Era horretan zehaztuko dira esleipenduna eta esleituriko plaza.</p>	<p><u>3.- Sorteo del resto de las plazas.</u></p> <p>En segundo lugar se efectuará el sorteo del resto de las 207 plazas de la planta 3ª del aparcamiento.</p> <p>3.1.- Si el número total de solicitantes incluidos en las Listas números 3, 4, 5 y 6 (Grupos B.1- B.2 - C.1 y C.2) es inferior al número de plazas a sortear, se efectuará un único sorteo de la siguiente forma:</p> <p>A cada uno de los solicitantes se le asignará con anterioridad al sorteo un número correlativo comenzando por el 1. En un bombo, se introducirán los números correspondientes a los solicitantes, y en el otro, los números de las plazas. Se sacará una bola del primer bombo y, otra bola del que contiene los números de las plazas. De esta forma queda determinado el adjudicatario y la plaza adjudicada.</p>
<p>3.2.- 3. Zerrendako (B.1 Taldea) eskatzaileen guztizko kopurua zozketatu beharreko plazen kopurua baino handiagoa baldin bada, zozketa bakarra egingo da aurreko atalean jasotako sistema beraren arabera, B.1. Taldeko eskatzaileekin.</p>	<p>3.2.- Si el número total de solicitantes incluidos en la Lista número 3 (Grupo B.1) es superior al número de plazas a sortear, se efectuará un único sorteo, por el mismo sistema recogido en el apartado anterior, con los solicitantes del Grupo B.1.</p>
<p>3.3.- 3. eta 4. Zerrendetako (B.1 eta B.2 Taldeak) eskatzaileen guztizko kopurua zozketatu beharreko plazen kopurua baino handiagoa baldin bada, lehen zozketa egingo da aurreko atalean jasotako sistema beraren arabera, B.1. Taldeko eskatzaileekin.</p> <p>Plaza libreak geratzen badira, bigarren zozketa egingo da, sistema beraren arabera B.2. Taldeko eskatzaileekin.</p>	<p>3.3.- Si el número total de solicitantes incluidos en las Listas números 3 y 4 (Grupos B.1 y B.2) es superior al número de plazas a sortear, se efectuará un primer sorteo, por el mismo sistema recogido en el apartado anterior, con los solicitantes del Grupo B.1.</p> <p>Si quedan plazas libres, se efectuará un segundo sorteo, por el mismo sistema con los solicitantes del Grupo B.2.</p>
<p>3.4.- 3. eta 4. zerrendetako zozketak egin ondoren plaza plaza libreak geratzen badira, prozedurarekin jarraituko da 5. zerrendan sartu</p>	<p>3.4.- Si efectuados los sorteos de las Listas 3 y 4, quedarán plazas libres, se continuará el procedimiento con las solicitudes incluidas en</p>

<p>diren eskabideekin, eta, oraindik ere plaza librerik geratuko balitz, 6. zerrendakoekin jarraituko da.</p>	<p>la Lista nº 5, y, si quedaran plazas libres, con las incluidas en la Lista nº 6.</p>
<p>3.4.- Plazak bukatzen direnean, eta horrelakorik behar bada, eskaeren zozketarekin jarraituko da itxaron-zerrendak osatu ahal izateko, kontuan izanik zozketa honetan 3. zerrendakoak zozketatuko direla lehenengo eta 4., 5. eta 6. zerrendetakoak ondoren.</p> <p>Kasu honetan zenbaki bakarra aterako da ontzitik, zerrenda bakoitzeko eskatzaileei dagozkien zenbakiak dauden lekutik. Itxaron-zerrendako lehenengoa izango da zenbaki hori, eta hurrengoak haren jarraian doazenak goranzko ordenan. (Esate baterako: 20 zenbakia ateratzen bada, honakoa izango da ordena: 20-21-22 etab....</p>	<p>3.5.- Agotadas las plazas, y en caso de ser necesario, se seguirá con el sorteo de solicitudes a fin de formar las listas de espera, teniendo en cuenta que en éste sorteo se sortearán primero las de la Lista nº 3 y, a continuación las de las listas nº 4 – 5 y 6.</p> <p>En este caso se extraerá un único número del bombo, donde se encuentran los números correspondientes a los solicitantes de cada una de las listas. Ese número será el primero de la lista de espera, siendo los siguientes sus correlativos en orden ascendente. (P. ejemplo: si sale el número 20, el orden será el siguiente: 20-21-22 etc....</p>
<p>4.- Nolanahi ere, Irungo Udalak, plaza libreak dauden bitartean, aurreko baldintza horiek betetzen dituzten interesatuei hutsik dauden plazen kontzesio demaniala egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.</p> <p>Kontzesio demanial guztiak egin ondoren, plaza itxaropenaren ondorioetarako soilik onartuko dira eskaerak, edozein arrazoirengatik, gerta litezkeen hutsak estaltzeko helburu bakarrarekin.</p>	<p>4.- En cualquier caso, el Ayuntamiento de Irun se compromete, mientras existan plazas libres, a continuar acordando la concesión demanial de las plazas vacantes a aquellos interesados que cumplan los requisitos anteriores establecidos.</p> <p>Una vez completadas la totalidad de concesiones demaniales, únicamente se admitirán solicitudes a efectos de expectativa de plaza y con el solo fin de cubrir las vacantes que, por cualquier motivo, se fuesen produciendo.</p>
<p><b>19.- PLAZEN ESLEIPENA.</b></p> <p>Kontratazio Mahaiak Udaltzaren Osoko Bilkurari aurkeztuko dio esleipen proposamena, jarduera guztiei dagokien dokumentazioarekin eta zozketen Aktekin batera.</p> <p>Udaltzaren Osoko Bilkurak aparkaleku plazen esleipenak onartu ondoren, Irungo Udalaren Iragarki Taulan eta <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a> orrian kontratatzailearen profilean iragarriko da</p>	<p><b>19ª.- ADJUDICACIÓN DE LAS PLAZAS.</b></p> <p>La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación, junto con la documentación relativa a todas las actuaciones, y las Actas de los sorteos, al Pleno del Ayuntamiento.</p> <p>Aprobadas las adjudicaciones de las plazas de aparcamiento por el Pleno del Ayuntamiento, la lista definitiva de adjudicatarios y plazas de aparcamiento adjudicadas será publicada en el Tablón de anuncios y en el perfil del</p>

esleipendunen eta esleitutako aparkaleku plazen betiko zerrenda. Era berean, esleipenaren berri emango zaie interesatu guztiei.

contratante de la página web Ayuntamiento de Irun [www.irun.org](http://www.irun.org). Asimismo, será notificada la adjudicación a todos los interesados.